Zutabea !

Sagar arra

AITOR LANDALUZE

Berriz ere hemen da, egun batez zeruan, eguzkiaren lekua sagarrak hartuko du eta gurekin geldituko da Oriobentan atzean gorde arte. Gustukoa du sagarrak egun hori, nartzisista dela pentsatuko duzue ba tira, nik ez nuke esango; hala ere, zeinek jakin zer egingo genukeen sagarrarekin bezala jaiegun bat ospatuko balute gure zukuaz...

Urtero maiatzako igande horretan, eguneroko nagiak sagarrondoan utzi eta goizean goiz jaikitzen da Aiako harrien atzetik, berehala plaza gainera etortzen da, azken orduko lanak, gehienak ote?, ikustea gustokoa du eta; orduan bai daude mutilak goapo-goapo alkandora txuriz..., poxpolinak..., azpikogonak...

Urtero etortzen diren sagardotegiak errepasatzen ditu, Astigarragako lehengusuak, Hernanikoak eta abar etortzen diren apuntatzen du, etortzen ez direnei ze errieta klase egin pentsatzeko denbora ere hartzen du.

Pixkanaka plaza jendez betetzen hasi da, musika ere entzuten du sagarrak hor goitik, "Bitxia! Aurten ere trikiti!" pentsatu du; beste sagarren aurrean ukatzen duen arren gogokoa du eta bestela begira ezazue, eta txortena nola astintzen duen ikusiko duzue.

Elizaren paretan sagardoaren prozesua egiten hasi dira, zirrara berezi batek zeharkatzen du orduan eta barruko hazik dantzan sentitu arren, lan hori ikustea ere atsegin du, "eskerrak budista naizela" esan dio barrutik atera zaion arratxoari, " bestela ezingo nuke hau ikusi".

Arra ere hortxe begira geratu da, eta ezagutzen ez duenaren ohiko galderak egiten hasi zaio sagarrari:

Eta hor behean dagoen hori zer da? Sagardo Eguna? Holakorik ba al da? Eta nolatan ez didate abixatu? Eh! Hor sagardo pila dago! Eta edateko zer egin behar da? Hi eta basoa? Norberak erosi behar duela? Eta edan nazkatu arte? Eta musutruk? Jana ere? Ze ba ez? Goiz osoan? Hori guztia agortu arte? Kanpotik ere etortzen dira, eh? Eta musika ? Eta martxa hau? Eta deskontrola... Sagarra, bitartean harrotuta badakizue, bere zukuari eskainitako eguna..., gainera ar parasito baten aurrean badauka bai harrotzea, "hire zukuarengatik ez ditek ba festa egun bat egingo" esaldia arrari botatzeko aukeraren zain da, bestela ez luke horrelako galdetegi astunik jasango. Sagarrak entzulea duela aprobetxatuz, erantzunak ahalik eta gehien luzatu eta loratzen saiatzen ari den arren, arrak dagoeneko ikusi ditu; bertsolariak! Oso zalea da batez ere bertso mikatzak direnean, baina hauen oinetan erakargarriagoa deritzon zeozer, "Paradisua!" esan du ikusi duenean: "ehun eta gehiago sagardo botatzaileek sortzen duten putzua!". Kontutan izan, berarentzat itsasoa da, eta gehiago pentsatu gabe buruz bera amildu da plazaren erdian sortu den sagardo zelai erdira zuzen zuzenean txooooooooooootx ozenki eta o bokala ikaragarri luzatuz.

Sagarrak nahi baino lehenago moztu behar izan du azalpena hala ere bere azken lezioa irakatsi nahi eta hauxe esan dio ordurako jaramonik egiten ez zion arrari:

"Aspaldian, Lezoko Lope de Isasti delako batek esan omen zuen: *...y la bebida de la sidra, que se hace en aquella tierra, hace la gente animosa, magnanima, respecto que las manzanas dulces quitan la melancolia y dan una fortaleza y brio particular...*"

Hala bedi!

Ainhoa Azpiroz - **Aitor Landaluze** - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK ONARTU BERRI DUGUN ARAUDIA BETE BEHARKO DU.
HALA EZ BADA, **NOAUA!**k IDATZI HORI EZ ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.
NOAUA!k ez du bere gain hartzen **IKA MIKA** atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.
Hurrengo alea: maiatzak 28. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** maiatzak 21.
e-posta bidez: erredakzioa@noaua.com

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! hamaboskaria, Euskal Txokoak, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, Inauteriak, **NOAUA!** Txiki, fototeka, Plis, Plas, Txalo ta Jolas... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Zure babesa funtsezkoa da kultur elkarte honen sustenguan.

Bazkide egin zaitez! Noaua!

36 euro urte osorako

Izena:
1.Abizena:
2.Abizena:
Helbidea:
Herria:
Telefonoa:
E-posta:
Kontu Korrontea: □□□□□□□□ □□ □□□□□□□□□□

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321